



Mutrikuko Udala

PROZEDURA IREKI BIDEZ OBRA KONTRATUA EGITEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

MUTRIKUKO MERKATU-PLAZA ERABERRITZEKO OBRAK

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea izango da Mutrikuko Hirigune historikoko Beheko plazaren azpiko erdisotoa eraberritzea. Erdisoto horrek tradizioz merkatu erabilera izan du, eta eraberritze-lanen bitartez gaur egungo beharretara egokitu nahi da, obrak espedienteetan jasota dagoen eta kontratu izaera izango duen agiri teknikoaren arabera eginda.

2. LANAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren obrak amaitzeko epea bost hilabetekoa izango da, zuinketa akta sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa, BEZ sartu gabe, 274.200,90 eurokoa izango da (berrehun eta hirurogeita hamalau mila eta berrehun euro eta laurogeita hamar zentimo). Lizitatzailleek hobetu egin lezakete kopuru hori.

Kontratuaren prezioak alekako prezioen zerrenda jasoko du, behar bezala banakatuak, eta kontratuak dirauen bitartean horiek aginduko dute. Prezio horiek aurkezten ez badira, ulertuko da lizitatzailleak Administrazioak egindako aurrekontukoak ematen dituela, proposamen ekonomikoak behera egindako ehuneko berean merketuak.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko aurtengo aurrekontuari lotutako finantzaketa dago aurreikusita.

5. ORDAINTZEKO ERA

Exekutututako obren ordainketa aldiro egingo diren egiaztapen bitartez egingo da, obren zuzendari fakultatiboak eginak.

Merkatu plaza eraberritzeko obra kontratuaren baldintza-agiria



Mutrikuko Udala

6. PREZIOEN BERRIKUSKETA

Kontratu honetan ez da prezioen berrikusketarik egingo, espedientean jasotzen denez.

7. BERMEAK

- Behin behineko bermea:

Lizitazio honetan parte hartzeko, lizitatuzaileek 5.484,02 euroko bermea (bost mila laurehun eta laurogeita lau euro eta bi zentimo) ezarri beharko dute, kontratuaren aurrekontuaaren %2.

Behin behineko bermeak kontratuaren behin betiko esleipena eman arte eskaintzak mantentzeko balio izango du.

- Behin betiko bermea:

Kontratuaren behin behineko esleipendunak, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzearen, esleipenaren kopuruaren %5eko behin betiko bermea ezarri beharko du, BEZ gabe.

Aipatutako bermea ezartzeko epea baliiodun hamabost egunekoa izango da, behin behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bermea Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 84 artikuluan ezarritako moduetakoren batean ezarri ahal izango da.

Bermearen itzulketa, osotasunean zein legokiokeen zatian, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 90 artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, bermealdia iraganda eta esleipendunak kontratuko baldintza guztiak betetzen dituenean.

8. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

Obra kontratuaren exekuzioa zuinketa akta sinatzearekin hasiko da, kontratua egin eta hilabete iragan aurretik.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 214. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Nolanahi ere, obrak Baldintza-agiri honetan jasotako baldintzei, agiriari erantsitako berezitasun teknikoei, eta Sektore Publikoaren kontratuen Legean zein urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Erreglamendu Orokorrean ezarritakoari hertsiki lotuta exekutatuko dira. Bereziki, kontratuaren exekuzioa Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean burutuko da, aginduak idatziz zein ahoz emanda.

Merkatu plaza eraberritzeko obra kontratuaren baldintza-agiria



Mutrikuko Udala

Kontratatari zein bere ardurapeko pertsoneri lepora lekizkiekeen egitez zein ez-egitez kontratua ondo gauzatzea zalantzan jarriko balitz, Administrazioak exekuzioa bide egokian jartzea lortzeko beharrezko ikusten dituen neurriak hartzea exiji lezake.

9. ESLEIPENDUNAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, eta laneko segurtasun eta higienez arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZU-KIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura izango da edozein pertsonari, edozein jabetza edo edozein zerbitzu publikori nahiz pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala antolatu ez, babestu ez edo ez seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo ustegabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoaren Legearen 220.e) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan kontratuan obra-unitate berriak sartu behar badira, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Esleipendunak prezio horiek onartzen ez baditu, kontratazio-organoak eskubidea izango du unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatuzko, edo zuzenean burutzeko.

12. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleitzailaren esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, urtebeteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean eta lege horren Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako berme gisa ezarria.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzailaren esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan bestelako kalte edo galerarik izan ez bada, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.



Mutrikuko Udala

13. BALDINTZAK BETE EZEAN ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHA-RREKO ZIGORRAK

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan epe horietan egin beharreko obrak burutu gabe baditu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000,00 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 206 eta 220 artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta Administrazioen Kontratuen Legearen Araudian ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, presakako izapidetzaz, Mutrikuko Udalaren 2010eko maiatzaren 27ko Alkatearen 62/2010 ebazpenak ezartzen duenez.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa izango diren eskaintzak baloratzeko honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat (garrantzi eta haztapenaren arabera ordenatuta):

Merkatu plaza eraberritzeko obra kontratuaren baldintza-agiria



Mutrikuko Udala

1. Prezioa: 50 puntu

$$2. \text{ Exekuzioaren epea: } V = \frac{\text{Eskaintza onenaren prezioa}}{X \text{ puntuazio handiena}} \quad 20 \text{ puntu}$$
$$V = \frac{\text{Baloratu beharreko eskaintzaren prezioa}}{\text{Epe laburrena ematen duen eskaintza, egunetan X puntuazio handiena}}$$
$$V = \frac{\text{Baloratu beharreko eskaintzaren epea, egunetan}}{\text{Epe laburrena ematen duen eskaintza, egunetan}}$$

Lizitatuzaileak epea laburtzen duenean, koherentea izan beharko du egiten duen proposamen teknikoarekin.

Eskaintzen proportziorik gabeko eta ezohizko izaera behatu ahal izango da Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi orokorraren 85 artikuluan eta hurrengoetan ezarritako parametro objektiboekin bat etorrita, aurkeztu diren eskaintza baliiodun guztien erreferentzia harturik. finkatutako parametro objektiboekin.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoez parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 49. artikuluan ezarritako kontratatze debekuren bat ez badute. Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak 18.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoez beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Era berean, enpresarioek kontratuaren xede den jardura burutzeko eska litekeen enpresa-gaikuntzaren jabe izan beharko dute.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen dokumentazio administratiboa eta teknikoa udal bulegoetan aztertu ahal izango da, 08:00etatik 15:00etara, edo jasoko da lizitazio iragarkian ezarritako lekuan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasi eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arteko lanegun guztietan.

Proposamenak Udal Erregistro orokorrean aurkeztuko dira, 13 EGUN NATURALEKO epean, aipatutako iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Merkatu plaza eraberritzeko obra kontratuaren baldintza-agiria



Mutrikuko Udala

Lizitazio hau, modu berean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da ondoko atari informatikoan sartuta: www.mutrikukoudala.net. Helbide horrextan eskuratu ahal izango dira baldintza-agiriak eta agiri osagarriak.

Lizitatzailerik hala eskatzen badute, baldintza-agirien eta agiri osagarrien inguruko informazio gehigarria proposamenak jasotzeko epe-muga baino sei egun lehenago eskuratu zaie, baldin eta eskaria proposamenak jasotzeko epe-muga baino zortzi egun lehenago egin bada.

SPKLaren 142.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza-agirien eta agiri osagarrien inguruko informazio gehigarria adierazitako epeetan eskuratu ezin izan bada, edo eskaintzak egin ahal izateko beharrezkoa bada tokia “in situ” ikustea, edo baldintza-agiriari lotutako agiri osagarriak “in situ” kontsultatzea, eskaintzak jasotzeko epea hautagaiek beharrezko informazio guztiaren berri izan dezaten beharrezkotzat jotako denboraz luzatuko da.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epe amaitu baino lehen sartu zirela jaso arren. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali dela, proposamena bidaltzen den egunean bertan egiaztatzen bada, kontratazio-organismoari posta-egiaztagiria faxez, telegramaz edo posta elektronikoz bidalita. Posta elektronikoko bidezko bidalketa, bere balioari dagokionez, Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoari lotuko zaio.

Lizitatzailerik bi gutunazal itxi aurkeztu beharko dituzte (A eta B) bakoitzean honako inskribaketa agertuta: “MUTRIKUKO MERKATU PLAZA ERABERRITZEKO OBREN PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Gutunazal bakoitzean enpresaren izena, proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak eta zein ordezkariarekin izenpetzen duen agertu beharko dira. Gutunazal biak izenpetuta egon beharko dira.

“A” gutunazalaren azpiztitulua “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” izango da, eta honako agiriak izango ditu barruan:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalardea.
- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.
- c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Saktore Publikoaren Kontratuen Legearen 49 artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Berariaz agertu beharko da indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean dituela, bi egoera horien egiaztagiria aurkezten ez badira.



Mutrikuko Udala

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 64. artikuluko eta 65. artikuluko letran ezarritako bideetako edozein erabili ahal izango da.

- Ekonomi eta finantza-kaudimena: 64. artikuluko edozein bideetatik.
- Gaitasun tekniko edo profesionala: Azkeneko hiru urteetan kontratatzen denaren antzeko objektua duten kontratu nagusien zerrenda, beraien kopurua, fetxak eta helburua publikoa edo pribatua duten adieraziz. Baldintza hau egiaztatutzat emango da azken hiru urteetako kontratuen kopuru metatua 1.500.000 euro gainditzen duenean edo ondoko klasifikazioa egiaztatzen badu:
Taldea: C; Azpitaldea: 2; Kategoria: C

f) Hainbat enpresak lehiaketara aldi baterako enpresa-batasuna eratuz jotzen badute, taldekide bakoitzak bere gaitasuna frogatu beharko du aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

Gorago adierazitako a), b) eta e) letretan adierazitako zirkunstantziak Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Klasifikatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri bitartez egiaztatu ahal izango dira, edo SPKLaren 73 artikuluan ezarritakoaren arabera ziurtagiriz. Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera lizitatzaileren erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko da, ziurtagirian jasotako zirkunstantziak ez direla aldatu adierazten duena.

“B” gutunazalaren azpтитulua “DIRU-PROPOSAMENA ETA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK” izango da, eta ondoko agiriak izango ditu barruan:

a) I eranskinaren arabera proposamen ekonomikoa.

b) I eranskineko proposamena justifikatzen duten agiriak (banakako prezioak eta proposatutako exekuzioaren epea erakusten duen planninga edo lan-programa).

Exigitzen diren agiriak originalen zein originalen kopien bitartez aurkeztu ahal izango da, Administrazioak edo Notario batek konpultsatuta edo benetakotuta.

19. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa (“A” kartazala) sailkatu egingo du. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Merkatu plaza eraberritzeko obra kontratuaren baldintza-agiria



Mutrikuko Udala

Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 18. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta laugarren egun baliodunean, 12:00etan, postaz bidalitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean xedatutakoa beteko da.

Ondoren, proposamenak balioetsi eta 16. puntuan adierazitako irizpideen arabera sailkatzeari ekingo zaio, eta egoki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

20. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio Kontratazio Organoak behin-behineko esleipena.

Behin-behineko esleipena hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita. SPKLaren 145.3. artikuluan aurreikusten denez, epe hori egutegiko 15 egunetan luzatuko da 136.3. artikulua zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurritz gainekoak dituzten eskaintzen kasuan.

Eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu honetan, eskaintzaileak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio behin-behineko esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela; bestela, anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen ez den proposamenari egingo zaio behin-behineko esleipena.

Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta egutegiko hamabost eguneko epean honakoak egin beharko ditu behin-behineko esleipendunak:

Egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu, baita kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.

Merkatu plaza eraberritzeko obra kontratuaren baldintza-agiria



Mutrikuko Udala

Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.

Behin-behineko esleipena behin betiko egin beharko da hilabeteko hamar eguneko epean, goian aipatutako epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita, baldin eta esleipendunak a) eta b) puntuetan adierazitakoak betetzen baditu. Aitzitik, beteko ez balitu, behin-behineko esleipendunari ez zaio behin betiko esleipena egingo.

SPKLaren 139.2. artikulua araberara, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, esleipenak eragindako gastuak ezarriko ditu Administrazioak, entzunaldia egiunez eta behar bezala ziurtatuz.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du. Esleipendunari jakinaraziko zaio, eta honek, jakinarazpena jaso eta egutegiko hamar eguneko epean ondorengoak bete beharko ditu:

- Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira.
- Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatze eta zuinketa-akta izenpetze.
- Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

21. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

Merkatu plaza eraberritzeko obra kontratuaren baldintza-agiria



Mutrikuko Udala

23. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Mutrikun, 2010eko maiatzaren 27an



Mutrikuko Udala

I ERANSKINA

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea, NAN,, Telefonoa

Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa

..... kontratatzeko asmozk dei egindako lehiaketaren berri izan dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €, Balio Eransiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, €, BEZari dagokio. Preziaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20...(e)koaren(a)

Izenpea